

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZIJETATEAREN LIBURUTEGIETARAKO BERARIAZKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOAK**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. KONTRATUEN LIZITAZIOKO GEHIENEN PREZIOA ETA UNITATEKO PREZIOAK, ETA BALIO ZENBATETSIA ZEHAZTEA**
- 8. PREZIOA ORDAINTEA**
- 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUAK ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUEN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUAK GAUZATZEA**
- 21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**

23.KONFIDENTZIALITASUNA

24.ASEGURUAK

25.ZIGORRAK

26.KONTRATUA LAGATZEA

27.AZPIKONTRATAZIOA

28.KONTRATUAREN ALDAKETAK

29.ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA

30.KONTRATUA ETETEA

31.KONTRATUA DEUSEZTATZEA

32.ARAUBIDE JURIDIKOA

33.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN ADIERAZPENA

V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

VI. ERANSKINA. ASEGURU ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateAREN LIBURUTEGIETARAKO BERARIAZKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateari egun atxikita dauden eta etorkizunean atxikiko diren liburutegietan berariazko zerbitzuak egiteko enpresa bat hautatzea, agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera. Zerbitzu horiek jarraian adierazten diren lotetan banakatzen dira.

Erakunde horiei egun atxikitako liburutegiak hauek dira:

- Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)
- Sail Historikoa (Konsituzio enparantza)
- Udal Liburutegi Nagusia, Haur Saila (Fermin Kalbeton)
- San Telmo Museoa
- Aiete
- Casares Tomasene (Altza)
- Egia
- Ernest Lluch (Amara)
- Intxaurrondo Berri
- Larratxo
- Larrotxene (Intxaurrondo)
- Loiola
- Lugaritz (Antigua)
- Okendo (Gros)
- Damen Bateria (Urgull)

1. Lotea.-

1.1. Erregistro berriaren katalogazioa eta sailkapena

Datuen katalogazioa, sailkapena eta sarrera. Funtsek bere baitan hartuko dituzte: funts historikoaren dokumentuak eta funts berriaren dokumentuak, edozein euskarritan eta edozein luzeratakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gaien alfabetikoa eskatzen dutenak.

1.2. Paperezko ISBD fitxa daukaten dokumentuen datuen katalogazioa eta sailkapena

Paperezko ISBD fitxa daukaten dokumentuen datuen katalogazioa eta sarrera. Horiei erantsi behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako gaien alfabetikoa: Liburutegi Nagusiko funts bibliografikoen funtsei dagokie (horiek gordailuetan daude jasota eta dagozkien fitxak fitxategi orokorretan sartuta daude). Liburu horiekin lan egiteko prozesuak aurretiaz eskatzen du fitxa eta liburua bilatzea eta lanlekura lekualdatzea (eraikinarekin 3. solairua, Konstituzio plaza, udal

liburutegien sareko zerbitzu tekniko nagusien bulegoa) eta, ondoren, liburua bere lekuan berriz ere ipintzea.

Gaien alfabetikoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan sartuko dira.

1.3. Gaien alfabetikoa behar ez duten edo sailkapena aldeztatik adierazita duten dokumentuen datuen katalogazioa eta sarrera

Oro har, funts berria da –batik bat, haurrentzako funts osoan jasotako literatura liburuak eta zinemako DVDak, edozein formatutan (liburua, DVDa, CDa, euskarri elektronikoa...), gaien alfabetikorik behar ez duena edota sailkapena aurretiaz adierazita daukana. Erregistro batzuetan, laburpen oharra eskatuko da.

Literatura erregistroetan, laburpen oharra eskatuko da.

1.4. Absynet 2.0 aplikazioan autoritateak egokitu, berrikusi eta sortzea

Asmoa ez da erregistro osoa berriro katalogatzea, baizik eta T100, T600. T610, /611, T650 eta T651 etiketak, eta T700, T710 eta T711 etiketak baliozkotzea. Horiek Amicus izeneko liburutegiak kudeatzeko sistema integratutik datozen erregistroak Absynet 2.0 bertsioako liburutegiak kudeatzeko sistema integratuta aldatzearen ondorio dira; 2.0 bertsioako Absynet sistema egun erabiltzen duen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoarekin bat egin ondoren.

Kasu batzuetan, beharrezkoa izango da goiburua berrikustea. Bikoiztutako erregistro publikoak ezabatuko dira (baleude); betiere, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoaren koherentziari erreparatuz.

Egun, udal liburutegi sareak AMICUS informatika aplikazioa erabiltzen du. Aplikazio horrek MARC 21 kodeak eskatzen ditu datuak sartzeko. Egun indarrean dauden Kultura Ministerioaren Reglas de catalogación-ei –“Katalogazio arauak” euskarazko itzulpenean (2008)– jarraituko zaie. Katalogazio maila, gutxienez, katalogazio arauetan adierazitakoen 2.a izango da. Era berean, Zerbitzu Tekniko Nagusiek prestatutako katalogazio arauari jarraituko zaie, baita Kultura Ministerioaren goiburu zerrendari –gaztelaniarako (1995)– eta Eusko Jaurlaritzarenari –euskararako– ere. Hori guztia eskuragarri egongo da Zerbitzu Tekniko Nagusietan.

Kasu guztietan, katalogoaren koherentzia bermatu beharko da. Horretarako, beharrezko aldaketa guztiak egingo dira. Gaien alfabetikoak Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan sartuko dira.

2016an, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoarekin bat egitea aurreikusi da (ez dago data zehatzaren berri). Bat egitea gauzatu ondoren, Absynet 2.0 informatika aplikazioan katalogatuko dira erregistroak (aplikazio hori Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak kudeatzen du). Aipatutako aplikazioak, halaber, MARC 21 formatua ezagutzea eskatzen du. Katalogazio eskuliburuak eskuragarri egongo dira Zerbitzu Tekniko Nagusietan eta Eusko Jaurlaritzaren web orrian, liburutegien zerbitzuan (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-lz/es>).

1. loteko zerbitzu horiei dagokienez, hileko gutxienez 400 erregistro exijituko dira.

Lanaren garapenean, ziurtatu beharko da Katalogoan dagozkion erregistroak sartzea, Liburutegi Zerbitzuko Unitate Tekniko Zentralak finkatutako kadentziaren eta baldintzen arabera.

Unitate Tekniko Zentraleko pertsonala arduratuko da egindako erregistroen kalitate gainbegiratu eta ebaluatzeaz.

2. Lotea.-

2.1. Liburutegiko zeregin osagarriak

- Jendeari arreta egitea liburutegiaren zerbitzuetan edo jardueretan. Helburua da premia bereziak eta zenbaitetan ezustekoak estaltzea, eta denetariko zereginetan laguntza ematea; adibidez: zentro bat irekitzea; hainbat jarduera edo zerbitzu (edo antzeko bestelakoak) abian jartzea; eta, baita ere, larunbatetan eta zubietan liburutegiak irekitzen laguntzea.
- Datu baseetan dagoeneko dauden erregistro datuak sartzea: ale berriei alta ematea.
- Funtsak prestatzea: dokumentuak jendearentzat eskuragarri jartzeko beharrezko zeregin guztiak (bizkar etiketak jartzea, zigilatzea, azala jartzea, lapurretaren aurkako babesa ipintzea, etab.).
- Datuak denetariko informatika euskarritan sartzea: Word, Libreoffice, Excell, EKI, etab. Eta antzeko zerrendak edo zereginak egitea.
- Oro har, liburutegi zerbitzuaren jardueretatik ondorioztatzen diren denetariko zeregin osagarriak.

2.2. Liburutegiko zeregin teknikoak

Denetariko liburutegi teknikak, zerikusia dutenak bai funtsekin (prozeduren eskuliburuak hautatu, berrikusi, antolatu eta egitea; xahutze lanak egitea; biltegi bibliografikoen funtsak antolatzea; etab.), bai zerbitzuekin (zerbitzu berriak antolatzea, memoriak eta estatistikak egitea, katalogoak diseinatzea, etab.); bai jardueren kudeaketarekin (Urgulleko Udako Liburutegia, Liburu Azoka).

Lizitatzailleek lote baterako edo bietarako eskaintzak aurkez ditzakete.

SPKLTBaren II. eranskinaren 26. kategoriak aipatzen dituen zerbitzuen artean dago kontratuaren helburua.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA

2.1.- ERAKUNDE KONTRATUGILEAK

Erakunde kontratugileak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta SAN TELMO MUSEOA, SA dira.

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK berak bakarrik egingo ditu ekonomikoki eskaintza onuragarriena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko bi erakunde kontratugileekin sinatuko diren kontratuak prestatzeko lanak.

Hala ere, esleipena argitaratu eta esleipendunei dagokien jakinarazpena egin eta gero, eta esleipendunak/ek agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, klausula horrek ezartzen duen epearen barruan bi kontratu egingo dira, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOArekin eta SAN TELMO MUSEOA SArekin.

Gauzak horrela, lizitazio honen xede diren zerbitzuak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOTik edo SAN TELMO MUSEOA, SATik eskatu eta kontratatu ahal izango dira eta eskaera egiten duen aldeari fakturatuko zaizkio eta berak ordaindu beharko ditu.

Kontratuak sinatzen diren unetik, eskubide eta betebeharren araubidea, kontratuak gauzatzeko eta iraungitzeko faseei dagokien guztian, bi erakunde kontratugileetako bakoitzari dagokiola ulertuko da.

Beraz, agiri hauetan DONOSTIA KULTURARI egindako edozein erreferentzia generiko honako hauei lotuta ulertu beharko da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari, bi erakunde kontratugileetako bakoitzarekin sinatuko diren kontratuak prestatu eta esleitzeari buruzko jardunei dagokienean.
- Bereizi gabe, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietatea bi erakundeetako edozeini, kontratu bakoitza formalizatu eta sinatzeari dagokionean, eta horiek gauzatu eta iraungitzeko faseekin lotutako guztian.

2.2 KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratuak prestatzeko, eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko prozeduraren ondorioetarako, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOko zuzendari kudeatzailea da Kontratazio Organoa.

Kasuan-kasuan kontratuak formalizatu eta izenpetzeko ondorioetarako, Kontratazio Organoa bi erakunde kontratugileetako bakoitzarena izango da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleitu dira kontratuak, agiri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek edukiko dute kontratu-izaera, esleipenaren ondoren egiten diren kontratuez gain: agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta enpresa lizitatzailleak/ek aurkezten ditu(zt)en eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu, kontratuak formalizatzen direnean, guztiak onartzen dituztela egiaztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratuek bi urte iraungo dute, formalizatu eta hurrengo egunetik hasita; urtebeteko bi luzapen egin daitezke jarraian, erakunde kontratugileak/ek bakarrik eskatzen badu/te. Ildo horretatik, kontratuak gehienez ere lau urteko iraupena edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Luzapen(ar)en jakinarazpena aribidean dauden kontratuak amaitu baino 3 hilabete lehenago egingo da gutxienez, eta jakinarazpena hori nahitaezkoa izango da enpresa esleipendun(ar)entzat.

7. KONTRATUEN LIZITAZIOKO GEHIENEO PREZIOA ETA UNITATEKO PREZIOAK, ETA BALIO ZENBATETSIA ZEHAZTEA

Lizitatzailleek, euren proposamen ekonomikoan, berariazko liburutegi zerbitzuak egiteko pertsona bakoitzeko unitate jakin batzuen (erregistroa, agintaritza edo orduak) prezioak zehaztuko dituzte.

Ondorio horietarako, honako hauek izango dira gehieneko unitateko prezioak (BEZa kanpo):

LOTEA	KATEGORIA	GEHIENeko UNITATEko PREZIOA
1. LOTEA	1.1. ERREGISTRO BERRIAREN katalogazioa eta sailkapena:	10,58 €/erregistro
	1.2. Paperezko ISBD fitxa daukaten dokumentuen datuen katalogazioa eta sailkapena:	9 €/erregistro
	1.3. Gaien alfabetikoa behar ez duten edo sailkapena aldeztu aurretik adierazita duten dokumentuen datuen katalogazioa eta sarrera:	7 €/erregistro
	1.4. Absynet 2.0 aplikazioan autoritateak egokitu, berrikusi eta sortzea:	1,50 € autoritateko
2. LOTEA	2.1.1. Liburutegiko zeregin osagarriak (prezio/ordu lanegunean):	19 €/ordu
	2.1.2. Liburutegiko zeregin osagarriak (prezio/ordu jaiegunean):	30 €/ordu
	2.1.3. Liburutegiko zeregin osagarriak (prezio/ordu Aste Santuko jaiegunean):	34 €/ordu
	2.2.1. Liburutegiko lan teknikoak (prezio/ordu lanegunean):	22 €/ordu
	2.2.2. Lan teknikoak (prezio/ordu jaiegunean):	30 €/ordu
	2.2.3. Liburutegiko lan teknikoak (prezio/ordu Aste Santuko jaiegunean):	34 €/ordu

Enpresa lizitatzailerak edo lizitatzailerak gehieneko unitateko prezio horiek murriztu ahal izango ditu(zte) euren proposamen ekonomikoetan.

Ezin izango zaio kosturik egotzi DONOSTIA KULTURARI lote bakoitzaren kontratu arduradunak zerbitzuak egiteko behar izan dituen orduen kostuagatik.

DONOSTIA KULTURAK egindako zerbitzuen eta erabilitako materialen prezioa ordainduko du, zerbitzuak egin diren hilabetea amaitu eta 30 egun naturaleko epean, betiere faktura luzatu bada lehen aipatutako epean eta ontzat eman bada.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzaile profilean argitaratuko da.

Kontratuen esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko da: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren/en enpresa esleipendunak/ek behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du/te bi erakunde kontratugileen alde, bere gain hartutako betebeharrak beteko ditu(zt)ela ziurtatzeko. Berme hori kasuan-kasuan dagokion lotearen balio zenbatetsiaren % 5koa izango da, BEZa kanpo.

Berme hori, gauzatu ahal izateko, aipatutako bi erakunde kontratugileetako edozeinek eskaera egin beharko du.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten du(t)en enpresa lizitatzaileak/ek hamar egun baliodun edukiko ditu/zte aipatutako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu daiteke bermea.

Eskudirutan eratzen bada, Kutxabank-eko 2095 0611 09 1061519723 kontu korrontean egingo da zenbatekoaren ordainketa.

Abal moduan ezarriz gero, baldintza agiri honi **I. eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera egingo da.

Bermea eratu dela ziurtatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta enpresa esleipendunak/ek kontratuko betebeharrak guztiak bete ditu(zt)enean.

Bermea(k) itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Behin betiko bermearen ganean enpresa esleipendunari/ei eska dakizkiokeen/ekeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa esleipendunak/ek bermea berrezarri edo handitu beharko du/te, dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun balioduneko epea izango du/te eta, hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuen aldaketaren baten ondorioz haien prezioa aldatzen bada, enpresa esleipendunak haien prezio berregokitu egin beharko dute, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezaten. Enpresa esleipendunak/ek hamabost egun naturaleko epea izango du/te bermea(k) aldatzeko, aldaketa erabakia(k) jakinarazten diren datatik aurrera.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatze debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren baldintza teknikoak egiteko edo kontratuaren dokumentuak egiteko prozesuan parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzaiteke edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatze ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita daudeneko estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita daudeneko estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsultexeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez

justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdinsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, baita SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea ere.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute kasurako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko gutxieneko eskakizunak eta kontratua gauzatzeko gutxienezko giza bitartekoak atxikitze konpromisoa:

Beharrezkoa denean, lizitatzailerak ondoren adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela ziurtatuko dute:

- Liburutegi, fitxategi eta museoen berariazko alorrean gutxienez 375.000 euroko negozio bolumena izatea azken hiru ekitaldiak (2013, 2014, 2015) batera hartuta.

Lote bakoitzari dagokionez, M taldea, 5. azpitaldea, 1. kategoria (edo hortik gorakoa) sailkapena izatea egiaztapen nahikoa izango da enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionalerako.

Ez dute sailkapena ziurtatu beharko Europar Batasuneko kide diren enpresa ez espainolek. Europar Batasuneko kide diren enpresa ez espainolek agiri honetan zerbitzuen kontratistaren sailkapen lortzeko beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dituela ziurtatuko dute.

Horrez gain, lizitatzailerak konpromisoa hartuko dute kontratura honako giza bitarteko hauek atxikitze:

- Gutxienez, lizitatzen deneko lote bakoitzera, baldintza teknikoen agiriko **4. klausulan** adierazitako pertsonala, adierazitako klausulan jasotako eskakizunak bete beharko dituen.
- Kontratuaren arduradun bat lizitatzen deneko lote bakoitzerako.

Konpromiso hori kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, berori urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua deuseztatzeko eskubidea izango du.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri hau, baldintza teknikoen agiri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta baldintza teknikoen agiria kontratatzailearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 / 20003, Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerik HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte (A, B eta C) lizitatzen duen lote bakoitzaren kasuan (A gutun azalaren kasuan izan ezik; bakarra izan daiteke, nahiz eta lizitatzailerik lote batera baino gehiagora aurkeztu) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan (Okendo Plaza 1 - 5., 20004 Donostia), erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era), horretarako kontratatzailearen profilean argitaratzen den lizitazio iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun azal horietan aurrerago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, lizitatzen den lotea, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta izaera, telefono zenbakia eta fax zenbakia, eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baldidunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan egin aurkeztu daitezke; betiere, ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzailerik proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA KULTURARI data bereko telex, fax (ondorengo zenbakira: 943481189) edo presako telegrama bidez egun berean. Proposamena bidali izana posta elektronikoen bidez ere adierazi ahal izango da (donostiakultura@donostia.eus). Posta elektronikoen bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa ere.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu egin beharko da, gero espedienteari eransteko.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, eskaintza ez da onartuko.

Dena den, adierazitako egunaren ondorengo 10 egun naturalak igaro ondoren proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

A gutun azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Enpresa lizitatzailleek kontratatzeke gaitasunari buruzko gutun azal bat aurkeztu beharko dute. Horretan, jarraian adierazten diren dokumentuak bildu beharko ditu. **lote bat baino gehiagorako eskaintzak aurkezten dituzten** enpresa lizitatzailleek **A gutun azal bakarra aurkez dezakete, honako dokumentazio hau erantsita:**

1. Lizitatzailleak eta, hala badagokio, haren ordezkariak jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresaburu ez espainolen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, berriz, finkatuta dauden Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo, bestela, zinpeko aitorten edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, betiere aplikatzekoak diren Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, baita SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea ere.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta dagokien ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da dagokion ahalordea, betiere Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan jasotakoaren arabera horrela eskatzen bada; edota, kasuak kasu, dagokion erregistroan inskribatuta egongo da, pertsona juridikoaren mota zein den.

- Aldi baterako enpresa elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea eratzen edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeke konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkarrearen ordezkari edo ahalzun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalzun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBaren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen enpresa lizitatzaillearen aitorten erantzulea, **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitorten erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

3. Enpresaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren ziurtagiriak, **12. klausulan** ezarritakoaren arabera.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ziurtatzeko, liburutegi, fitxategi eta museoen berariazko alorrean, gutxienez 375.000 euroko zenbatekoaz, azken hiru ekitaldiak (2013, 2014, 2015) batera hartuta egindako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda aurkeztuko da. Bertan adieraziko dira: zenbatekoa, datak eta bezeroa, publikoa edo pribatua, eta bezeroek egindako ziurtapen bat aurkeztuko da, halaber.

4. Lizitatzailleek, hautabidez, exijitutako kaudimena sailkapenaren bidez egiaztatzen badute, organo eskudunak luzatutako ziurtapena aurkeztu beharko dute, eta, horrekin batera, sailkapena indarrean dagoela eta ziurtapenean barne hartutako ezaugarriak aldatu ez direla egiaztatuko duen lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak luzatutako sailkapen ziurtapenak zein Estatuko Administrazioak luzatutakoak aurkez daitezke.

Ziurtagiriak lizitatzaillea adierazten diren multzoan eta azpimultzoan sailkatuta dagoela egiaztatu beharko du, agiri honen **12. klausulan** eskatutako kategorian edo goragokoan.

5. Kontratua gauzatzera **12. klausulan** adierazitako giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa.

Giza bitartekoei dagokienez, baldintza teknikoen agiriaren **4. klausulan** adierazitako dokumentazioa erantsiko da.

Konpromiso hori funtsezko kontratu betebeharra izango da SPKLTBaren 223. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Hortaz, berori urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK bere borondatez kontratua deuseztatzeko eskubidea izango du.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO) jasotakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea hautatutako lizitatzaillearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa Kontratazio Organoari entregatzeak, proposamenean sartuta dagoen heinean, berekin ekarriko du lizitatzailleak datuak lagatzea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzailleak bete egin beharko ditu DBLOan xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, tratamenduaren erantzule gisa bete behar dituen eginbideen kaltetan izan gabe, hautatutako lizitatzailleak DBLOaren 11. artikuluan jasotakoa bete beharko du eta, gainera, bere erantzukizunpean soilik, interesdunen baimen informatua lortu beharko du, lehen aipatutako datu lagapena gaitu ahal izateko. Hori Kontratazio Organoaren aurrean behar bezala egiaztatu beharko du horretarako errekerimendua egiten zaionean.

6. Enpresa atzeritarrek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzen dutela adierazten duen berariazko aitortpena aurkeztu behar dute, kontratua garatzean zuzenean zein zeharka izan daitezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, uko egiten zaio enpresa lizitatzailleari dagokion foru atzeritarrari.

7. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera.

8. Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitortpen erantzulea, **V. eranskin**eko ereduaren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailleek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1) atal honetan aipatutako dokumentazioaren orde. Inskripzio ziurtagiriarekin batera, lizitatzailleak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela jasoko duen erantzukizunpeko adierazpen sinatua aurkeztu beharko du.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du enpresa lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazioaren gaztelaniarako edo, hala badagokio, euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitatzailleek egiten duten proposamen teknikoak aurkeztu beharko dute, **lizitatzen duten lote bakoitzean gutun azal bereizian**.

Proposamen teknikoan, honako hau jasoko da:

a) Egin beharreko zerbitzuaren edo lanen azalpen memoria edo gauzatze proiektua. Bertan, katalogazio bibliografikoaren plan xehatua jasoko da, giza bitartekoaren antolamendua adierazita, eta zehazturik aplikatzen den kalitate kontrola, lan metodologia, bileretarako proposamenak eta liburutegiko pertsonalarekiko koordinazioa, txostenak igortzea, etab.

b) Berariaz zehaztuko dira hobekuntza proposamenak. Honako hauei buruzkoak izan daitezke:

- ✓ **1. Loteari** dagokionez: erregistro bibliografikoak aberastea (azalak eskaneatzea, zenbait egileren erregistro guztietarako eduki oharrak egitea, Eusko Jaurlaritzaren e-bookseko plataforma den e-liburutegian katalogazioa hobetzearekin lotutako proposamenak egitea, aurkibideak gehitzea, elebitasun esperientzia, txostenak igortzea, erregistroen kalitatea kontrolatzea, etab.).
- ✓ **2. Loteari** dagokionez: baldintza teknikoen agiriko **2. klausulan** finkatutako eskakizunak betetzeko, txostenak igortzeko eta kalitate kontrolak egiteko gehieneko epea murriztea.

Memoriaren baitan jasoko da, era berean, zerbitzuaren jarraitutasun plan bat, lanak egiten dituztenei bat-batean sortutako gorabeheren kasurako (oporrak, gaixotasunaren ondoriozko absentziak, etab.).

C) Lizitazio honetan abiapuntutzat hartzen da kontratua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren kalitateak eragin nabarmena izan dezakeela kontratuaren gauzatzean, zerbitzu intelektualekin lotutako kontratua baita.

Ildo horretatik, agiri honen **12. klausularen** arabera eskatutako gutxienekoarekin giza baliabide gehigarriak atxikitzea eskaini ahal izango da kontratua gauzatzeko.

Era berean, agiri honen **12. klausularen** arabera gutxienekotzat atxikitako pertsonen dagokionez, klausula horretan gutxienekotzat jasotako eskakizun gehigarriak eskaini ahal izango dira.

Bi konpromisoak hurrengo klausulan jasotako baldintzetan baloratu ahal izango dira.

Giza bitartekoak izenez identifikatuko dira eta horien curriculum vitaeko fitxak gehituko dira. Horietan, titulazioak, esperientzia eta hizkuntzen ezagutza adieraziko dira.

DBLOan jasotakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea hautatutako lizitatzailaren aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa Kontratazio Organoari entregatzeak, proposamenean sartuta dagoen heinean, berekin ekarriko du lizitatzailak datuak lagatzea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzailak bete egin beharko ditu DBLOan xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, tratamenduaren erantzule gisa bete behar dituen eginbideen kaltetan izan gabe, hautatutako lizitatzailak DBLOaren 11. artikuluan jasotakoa bete beharko du eta, gainera, bere erantzukizunpean soilik, interesdunen baimen informatua lortu beharko du, lehen aipatutako datu lagapena gaitu ahal izateko. Hori Kontratazio Organoaren aurrean behar bezala egiaztatu beharko du horretarako errekerimendua egiten zaionean.

d) Balorazio irizpideen ikuspegitik interesgarritzat jo daitekeen beste edozein agiri gehitu da.

Lizitatzailleak kontu berezia izan beharko du gutun azal honetan gehitu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian; izan ere, edukiari eta formatuari dagokienez, emandako jarraibideetara egokitu beharko baitu. Orobat, ezin izango da eskaintzaren inguruko orientabideak edo alderdiak jakitera eman ahal izango duen erreferentziarik egin.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.

Ez da onartuko/aztertuko adierazitako egitura betetzen ez duen memoria teknikorik.

Gutun azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko orduan, lizitatzaillei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

C gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitatzailleek proposamen ekonomikoa aurkeztuko dute, **lizitatzen duten lote bakoitzerako gutun azal bereizian**, eta proposamen hori agiri honen **IV. eranskineko** ereduaren arabera izango da.

Proposamen desagoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzailari audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Ondorio horietarako, neurrigabetzat edo ezohikotzat hartu ahal izango da proposamen guztien guztizko prezioen baturari dagokion batezbesteko aritmetikoa 20 unitate portzentual edo gehiago jaisten duen eskaintza.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, baita baldintza teknikoen agirian eskatutakoena ere. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua/k baliogabea izan daite(z)ke, enpresa esleipendunari berari egozteko moduko arrazoi onorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Honakoak balorazio irizpideak eta dagokien haztapena, lote bakoitzerako zehaztuta:

Eskaintza teknikoa. 60 puntu arte:

1. Lotea:

A) Egin beharreko zerbitzuaren eta lanen, eta aurreko **13. klausulan** adierazten diren gainerako alderdien azalpen memoria edo gauzatze proiektua (30 puntu, gehienez).

B) Agiri honen **13. klausulan** zerrendatutako alderdien gaineko hobekuntza proposamenak: Eskainitako unitateko prezioekiko kostu gehigarria ez dakartenak soilik baloratuko dira (5 puntu, gehienez).

C) Giza bitartekoak. Atxikipen konpromisoan jasotako gutxieneko giza bitartekoen kualifikazio eta egokitasun handiena baloratuko da, agiri honen **12. klausulan** eskatutakoarekiko; baita agiri honen **12. klausulan** exijitutako gutxienekoarekiko modu gehigarrian lizitatzailleak kontratuari atxikitako giza bitartekoen kualifikazioa eta egokitasuna ere. Kualifikazio eta egokitasun horren baitan kontuan hartuko dira, esperientzia ez ezik, 1. lotea gauzatzeko egin beharreko jarduerekin lotutako arloetako titulazioak eta prestakuntza. Hortaz, prestakuntza osagarria baloratuko da, dagozkion titulazioen bitartez egiaztatutakoa, bibliotekonomia eta dokumentazioarekin lotutako gaietan, baita bestelako lizentzia, master, graduondoko prestakuntza eta/edo hizkuntzen jabe izatea ere (25 puntu, gehienez).

2. Lotea:

A) Egin beharreko zerbitzuaren eta lanen azalpen memoria edo gauzatze proiektua (30 puntu, gehienez).

B) Agiri honen **13. klausulan** zerrendatutako alderdien gaineko hobekuntza proposamenak: Eskainitako prezioekiko kostu gehigarria ez dakartenak soilik baloratuko dira (5 puntu, gehienez).

C) Giza bitartekoak. Atxikipen konpromisoan jasotako gutxieneko giza bitartekoen kualifikazio eta egokitasun handiena baloratuko da, agiri honen **12. klausulan** eskatutakoarekiko; baita agiri honen **12. klausulan** exijitutako gutxienekoarekiko modu gehigarrian lizitatzailleak kontratuari atxikitako giza bitartekoen kualifikazioa eta egokitasuna ere. Kualifikazio eta egokitasun horren baitan kontuan hartuko dira, esperientzia ez ezik, 2. lotea gauzatzeko egin beharreko jarduerekin lotutako arloetako titulazioak eta prestakuntza. Hortaz, prestakuntza osagarria baloratuko da, dagozkion titulazioen bitartez egiaztatutakoa, bibliotekonomia eta dokumentazioarekin lotutako gaietan, baita bestelako lizentzia, master, graduondoko prestakuntza eta/edo hizkuntzen jabe izatea ere (25 puntu, gehienez).

Eskaintza ekonomikoa (bai 1. lotekoa, bai 2. lotekoa): 40 puntu, gehienez

Eskainitako unitateko prezio bakoitzari formula hau aplikatuko zaio:

$$P = 40 \times \text{gutxieneko eskaintza} / N \text{ eskaintza}$$

Non:

P = Baloratutako lizitatzailleak eskuratutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

N eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Formula hori eskainitako unitateko prezio bakoitzari aplikatuko zaio, eta, ondoren, lortutako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da (puntuazio horiek eskaintzen den unitateko prezio bakoitzarekiko lortuko dira, eskaintza ekonomikoaren guztizko puntuazioa zehazteko).

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURako Kontratazio Ataleko ordezkari bat.
- DONOSTIA KULTURako Liburutegietako zuzendari teknikoa.
- DONOSTIA KULTURako Kultura Ekintzako zuzendari teknikoa.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak lote bakoitzari dagokion A gutun azaleko ("Kontratatze gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailerak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Ondoren lote bakoitzaren B gutun azala irekiko da. Bertan gordetzen da proposamen teknikoa, eta beraren azterketa eta balorazioa egingo da.

Lote bakoitzeko C gutun azaleko proposamen ekonomikoa irekitzea jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako enpresa lizitatzailerak guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago, gutxienez.

Lote bakoitzaren proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzailerak, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Lote bakoitzaren proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratu dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLAO, aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoiak nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14. klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamenaren txosten juridikoa egingo da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako enpres(ar)en alde.

17. KONTRATUAK ESLEITZEA

Lote bakoitzean, esleipenerako enpresa lizitatzailerak aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen enpresa lizitatzaileri, eta enpresa lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen dokumentazioa.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio; edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen aitorpen erantzulea gaineratu beharko du.

- Kontratua gauzatzeko eskaintzan hitzemandako giza baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagiria.
- Agiri honen **11. klausulan** jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatzailerak/ek bere/n eskaintza atzera bota du(t)ela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio/e hurrengo enpresa lizitatzaileri/ei (lote bakoitzean eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratzeko dira lizitatzailerak).

Kontratazio Organoak kontratu(ar)en esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Lote bakoitzaren esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du erakunde kontratugile bakoitzaren Kontratazio Organoak, eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie, agiri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatzean hobetuko dira.

Kontratuak formalizatu aurretik, esleipendunak/ek honako dokumentazio hau aurkeztuko du/te:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzearen ondorioz sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria. Esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loten balio zenbatetsiaren arabera.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarrearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkarrearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Aseguru erakundearen ziurtagiria, **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Kontratuak formalizatzeko, lizitatzaileri esleipenaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun balioduneko epea igaro eta gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua formalizatzeko eskaera bidaliko dio/e esleipendunari/ei. Esleipendunak dokumentu pribatu bat landu beharko du, aipatutako eskaera jaso eta biharamunetik hasi eta hurrengo bost egun naturalen barruan.

Enpresa esleipendunak/ek, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatu daitezen eskatu ahal izango du/te; kasu horretan, bere/n kontura izango dira sortutako gastuak.

Behar adina kontratu egingo da, kontratuen xede diren loten esleipen suertatu den enpresa lizitatzaileren arabera, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN eta SAN TELMO MUSEOA SA sozietatearekin.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratuen formalizazioaren iragarkiak argitaratzeagatik sortutako gastuak. Enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loten balio zenbatetsiaren arabera.

Lote bakoitzaren enpresa esleipendunari egoztekoak diren kausen ondorioz, adierazitako epearen barruan kontratuak formalizatuko ez balira, DONOSTIA KULTURAK hurrengo lizitatzaileri/ei errekerimendua egin ahal izango dio/e (eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera) agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkez dezan, eta hamar egun balioduneko epea emango dio horretarako.

19. KONTRATUEN ARDURADUNA

ontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuen arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, DONOSTIA KULTURARI lotutakoa edo kanpokoa.

Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu kontratuen arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUAK GAUZATZEA

Jarraian adierazi dira kontratuak gauzatzeko kontuan hartuko diren baldintzak:

- Kontratuak enpresa esleipendunaren arriskuz eta ausaz gauzatuko dira.
- Kontratuak gauzatzeko kontuan hartuko dira kontratuen edukia eta baldintzak, ekonomia eta administrazio klausulen agiria, baldintza teknikoen agiria eta enpresa esleipendunak/ek aurkeztutako eskaintza/k, eta DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideen arabera egingo da.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, bai eta lanak kalitate maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

- Enpresa esleipendunak/ek DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion/en datu guztiak aurkeztuko ditu/zte, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du/te, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du/te.
- Enpresa esleipendunak/ek ez du/te oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.
- Enpresa kontratugileak/ek zerga esparruan eta lan esparruan indarrean dauden xedapenak beteko ditu/zte, bai eta Gizarte Segurantzaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek arlo horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.

- Enpresa esleipendun(ar)en ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen du(t)ela eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen du(t)ela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa esleipendunaren mendekoak dira. Enpresa esleipendunarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa esleipenduna/k izango d(ir)a arduradun bakarra/k zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin -langile propioekin edo noizean behinka azpikontratatzeko direnekin- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioen aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratugileak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa esleipendunak/ek bere/n gain hartuko ditu/zte zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Enpresa esleipendunak/ek DBLOak, eta berori garatzeko araudiak haientzat ezarritako betebeharrak beteko ditu/zte, datu pertsonalik erabiltzen badu/te. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak/ek, bere jardueren esparruan, egiten du(t)en datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren arduradun d(ir)en aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten du(t)ela ulertu behar da, agiri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.

Bereziki eta izaera mugatzailerik gabe, enpresa esleipendunak/ek betebeharrak batzuk bete beharko ditu/zte, DONOSTIA KULTURAREN aldeko kontratazio honen xede den zerbitzugintzara atxikitako langileen datuak lagatzen dituen aldea den neurrian (betiere interesdunek aldeztu aurretik onartu eta gero).

- Edozein kautan, enpresa esleipendunak/ek lana ondo eta kontratuaren hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu/zte, eta bere/n betebeharrak betetzeko behar ditu(zt)en langileak kontratatuta beharko ditu/zte. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu/zte beren ardurapeko langileekin

21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak izango dira funtsezko kontratu betebeharrak:

- DONOSTIA KULTURAK eskatutako kontratuaren xede diren zerbitzuak egitea baldintza teknikoaren agiriaren ezaugarriak arabera.
- Eskaintzan barne hartutako giza bitarteko guztiak kontratura atxikitzea.

- Bere kontura, zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortzea. Era berean, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko egin beharreko gastuak, bai eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean berori gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.
- Agiri honen **24. klausulan** adierazitako aseguru-polizak egitea eta mantentzea.
- Kontratua gauzatzeko atxikitako langileen oinarrizko lan eskubideak bete eta ziurtatzea. Zehazki, indarrean dagoen laneko araudiaren arabera eskatzekoak den haien ordainsaria eta beste edozein gastu sozial edo laboral ordaintzea.
- Lote bakoitzari dagokionez, kontratuaren arduradun bat kontratuari atxikitzea.
- DONOSTIA KULTURAREN aldetik kontratuaren arduradun berri bat izenda dadin onartzea, edozein arrazoi dela-eta.
- Baldintza teknikoaren agiriaren 2. klausulan ezarritakoaren arabera, DONOSTIA KULTURAK, hala badagokio, eskatzen di(zki)en giza bitartekoak kontratuari atxikitzea, kontratu(ar)en indarraldian, zerbitzuei dagokienez, lan kargan izaten daitezkeen aldaketei erantzuteko, zerbitzuen kalitate uniformearekin ziurtatzeko moduan.

Zerbitzuak egiteko ordu, autoritate eta erregistro kopurua aldatu ahal izango da lan kargaren arabera. Hala, kontratista/k behartuta egongo d(ir)a, betiere, zerbitzu horiei beharrezko giza bitartekoak atxikitzeke adierazitako aldaketei erantzutearren, zerbitzuen kalitate uniformearekin ziurtatzeko moduan.

Lan kargaren aldaketen ondoriozko beharrak DONOSTIA KULTURAK zehaztuko ditu, eta kontratistari/ei jakinaraziko di(zki)e. Gainera, hala badagokio, DONOSTIA KULTURAREN iritzian aldaketa horiei erantzuteko beharrezkoak diren giza bitartekoak atxikitzeke eskatuko dio/e. Nolanahi ere, errekerimendu horiek nahitaez bete beharko ditu(zte) kontratistak/ek, baldintza teknikoaren agiriaren 2. klausulan ezarritakoari jarraituz.

- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten eginkizuna eta denbora edozein dela, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, DONOSTIA KULTURAK emandako eraginkortasun arau orokorrak betetzen ez badituzte, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo dagokion loteren kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Donostia Kulturak errekerimendua egiten duenetik gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo da ordezkapena, kasu larrietan edo oso larrietan izan ezik eta gertaeraren ezaugarriak direla-eta ordezkapena berehala egin behar den kasuetan. Langileak ordezkatzeko, DONOSTIA KULTURAREN oniritzia beharko da eta DONOSTIA KULTURARENtzat ez du erantzukizunik ekarriko bere gain, enpresa esleipendunak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.
- Langileak ordezkatzeko (DONOSTIA KULTURAREN oniritziarekin) gaixotasun, opor, baimen, istripu eta abarreetatik izaten diren bajak estaltzeko; betiere,

kontratututako zerbitzuak modu eraginkorrean eskainita. Gehienez ere hogeita lau orduko epean egin beharko dira ordezkapenak.

- Enpresa esleipenduna DONOSTIA KULTURAKo produktu, obra edo zerbitzuen hornitzaile edo eragile gisa agertzeko debekua, eta dokumentazioan edo ezagutzera emateko edo publizitatea egiteko balio dezakeen edozein bitartekotan agertzeko debekua, DONOSTIA KULTURAK berariaz baimentzen duenean izan ezik.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazio honen xede den zerbitzugintzak, zerbitzuen edukia kontuan izanda, eska lezake: (i) enpresa esleipendunak/ek datu pertsonalak tratatzea, DONOSTIA KULTURAREN kontura eta/edo Tratamenduaren Arduradun gisa jarduten duten beste entitate batzuen kontura; eta (ii) enpresa esleipendunak DONOSTIA KULTURA arduradun edo tratamenduaren arduradun deneko fitxategiei gaineratutako datu pertsonalak eskuratzea.

Testuinguru horretan, enpresa esleipenduna/k betetzera behartuta egongo d(ir)a DBLOan adierazitakoa (batez ere, 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa), 1720/2007 Errege Dekretuan (DBLOA, aurrerantzean), abenduaren 21ekoan eta DBLOa garatzeko araudia onartzeko denean, adierazitakoa eta aipatutako arauak garatzen dituzten gainerako xedapenetan adierazitakoa.

Hala, DBLOaren arabera, enpresa esleipendunak edo enpresa esleipendunetako bakoitzak, tratamenduaren arduradun edo arduradunorde gisa, betebeharra du DONOSTIA KULTURAREKIN datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOaren 12. artikuluan eta DBLOaren 20. artikuluan adierazten den edukia eta hedadura barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori/ek DONOSTIA KULTURAK eta enpresa esleipendunak/ek lizitazio honen xede den kontratua sinatzen duten unean hitzartuko da eta eranskin gisa aurkeztuko da.

Edonola ere, eta datuak eskuratzeko kontratuan ezartzen dena alde batera utzita, enpresa esleipendunetako bakoitzak kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteagatik sortzen diren betebeharrak beteko ditu:

- DBLOan, DBLOan eta kontratua esleitzen den datan edo kontratuaren indarraldiak irauten duen bitartean datuak babesteari dagokionez indarrean dauden gainerako arauetan xedatzen dena.
- DBLOaren 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitako interesdunari informazioa emateko eta baimena lortzeko betebeharrak.

Ondorio horietarako, beharrezkoak dituen bitartekoak erabiliko ditu (adib.: informazio klausulak formularioetan eta interesdunei dagokienez erabili beharreko dokumentuak, etab.), eta honako hau adieraziko da beti: (i) datuen tratamendua DONOSTIA KULTURAREN kontura eta/edo berorrek tratamenduaren arduradun gisa dihardueneko hirugarren erakunde batzuen kontura egiten dela; (ii) agiri honen xede diren zerbitzuak egitean jasotako datu pertsonalak DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko fitxategi batean edota tratamenduaren arduradun gisa hark dihardueneko fitxategi batean gordeko direla; eta (iii), ondorioz, DONOSTIA KULTURA eta/edo berorrek tratamenduaren arduradun gisa dihardueneko erakundea izango dela tratamendu horren arduradun bakarra eta eskusiboa, eta enpresa esleipenduna, kasuak kasu, tratamenduaren arduraduntzat edo arduradunordetzat joko dela.

- Enpresa esleipendune(ta)ko langileen arteko erabiltzaileetako bakoitzak dagozkion funtzioak betetzeko beharrezkoak dituen datuak eta/edo baliabideak besterik ez ditu izango eskuragarri.
- Zerbitzuak (zati batean behintzat) DONOSTIA KULTURAREN lokaletan bertaratuta egingo direnez, enpresa esleipenduna/k eta horren pertsona behartuta egongo dira DONOSTIA KULTURAK unean-unean datuen babesaren arloan ezarrita dituen segurtasun neurriak betetzera.
- DONOSTIA KULTURAREN lokaletatik kanpo kontratistak egiten dituen gainerako datu tratamenduetarako, DBLOAN ezarritakoaren arabera dagozkion segurtasun neurriak hartuko dira.
- DONOSTIA KULTURAK eskatzen badu, DONOSTIA KULTURAK eta/edo datuen tratamenduaren arduradun den erakundeak tratatzen dituzten datuen eta erakunde horrek emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta integritatea ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatuko dituen memoria aurkeztuko da.
- Segurtasun neurri horiek gauzatzeaz eta gainbegiratzeaz zuzenean arduratzen d(ir)en pertsona edo pertsonak jakinaraziko zai(zki)o DONOSTIA KULTURARI.
- Langileei datuen babesari buruz indarrean dauden arauen ondoriozko betebeharretan prestatu eta horien berri emango zaio pertsonalari.
- Enpresa esleipendunak/ek zein lizitazio honen xede den kontratuan parte hartzen duten langileek kontratuaren indarraldian ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gordetzeko betebeharra dute.

23. KONFIDENTZIALITASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez agiri honetan xedatzen denaren kaltetan izan gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du hedatu enpresa lizitatzailerek emandako informazioa berori konfidentzialtzat izendatu badute; batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa esleipendunak/ek, bere/n aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen du(t)en informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du/te, baita agirietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasuna betirako gorde behar da.

24. ZIGORRAK

Lote bakoitzaren enpresa esleipendunak/ek, berari/beraiei egotz dakizkiokeen/dakizkiekeen arrazoiak medio, kontratatutako zerbitzuen gauzatze akastuna egiten badu/te edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu/te, DONOSTIA KULTURAK kontratuak deuseztatzea erabaki dezake, agiri honetako **31. klausulan** adierazitako baldintzen arabera, edota kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, DONOSTIA KULTURAREN alde, eguneko 300 euroko zigorra sortuko da.

Gauzatze akastuna eginez gero nahiz edozein kontratu baldintza beteko ez balitz, akatsa konpontzeak kontratuaren xede diren lanen gauzatzea atzeratu duen guztizko egun kopuruaren gainean aplikatuko da zigor hori, edota ez betetzeak iraun duen guztizko egun kopuruaren gainean, hurrenez hurren.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte galerei dagokienez.

Kontratuak gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan deusezta dezake kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorrak gauzatzeko, kenkariak egingo dira kasuan-kasuan loteren enpresa esleipendunari ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da behin betiko bermea gainditzen duen kopurua.

Edonola ere, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, enpresa esleipendunak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

25. KONTRATUA LAGATZEA

Ezingo dira inola ere kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Ezingo dira inola ere azpikontratatu kontratuaren xede diren prestazioak.

27. KONTRATUAK ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

28. ENPRESA ESLEIPENDUN(AR)EN ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipenduna/ek izango du/te egiten ditu(zt)en lanen eta eskaintzen ditu(zt)en zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten ditu(zt)en utzikieriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa esleipendunak/ek ordainduko ditu/zte.

Enpresa esleipendunak/ek erantzungo du/te langileek DONOSTIA KULTURAREN instalazioetan zein materialetan eragindako narriadura edo kalteen aurrean, eta bere/n kontura izango dira egin beharreko konponketak edo aldaketak.

Enpresa esleipenduna/k d(ir)a erantzule kontratuaren xede den zerbitzuko langileen betebeharren gainean, langile propioak edo enpresa azpikontratutako langileak izan, eta horien kontura izango dira langile horien ordainsariak eta bestelako gizarte edo lan gastuak. DONOSTIA KULTURA ez da inoiz erantzule izango enpresa esleipendunak/esleipendunek langileekiko dituen/dituzten betebeharren aurrean.

DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa esleipendun(ar)en ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen egiteen edo ez egiteen ondorioz hirugarren pertsonen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

29. KONTRATUAK ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratuen etetea adosten badu, edo etetea SPKLTBaren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan berariaz aplikatzekoa da), dagokion Akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

30. KONTRATUAK DEUSEZTATZEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak

eta 299. artikuluan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua deuseztatzeko ezarritako edozein kasutan, berori automatikoki deuseztatuko da. Nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari/ei jakinarazpena bidaltzea.

Horrez gain, dagozkion kontratuen likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian xedatzen denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagozkion dokumentazioa eta lanak aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Ezeztatzen bada, enpresa esleipenduna/ek benetan egin ditu(zt)en lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du/te, hasiera batean.

Enpresa esleipendunari/ei egotzi ahal zaizkion/en arrazoiengatik indarrrik gabe uzten bada kontratua, lote bakoitzaren kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta enpresa esleipendunari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

31. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak pribatuak dira eta, horiek prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, honako hauek arautuko dituzte: ekonomia eta administrazio klausulen agiriak, baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan ezarrita ez dagoen guztian, SPKLTBan horri buruz ezarritako arauak (esleipen boterea duten eta Administrazio Publikokoak ez diren sektore publikoko erakundeek egindako adierazitako SPKLTBaren II. eranskineko 17.etik 27.era bitarteko kategorien artean bilduta dauden zerbitzu kontratuetarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: klausula ekonomiko administratiboen agiri honek eta baldintza teknikoen agiriak; eta, horietan aurreikutsita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBaren I. liburuko V. tituluaren kontratuak aldatzeko ezarritako arauak kontratuari aplikatuko zaizkio.

Horrez gain, SPKLTBa, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zati batez garatzeko dena, eta HAKLAOa aplikatzekoak izango dira agiri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

32. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Hala badagokio, kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztuko da, SPKLTBaren 40. eta hurrengo artikuluetan jasotakoaren arabera.

Aipatutako errekurtsu berezia ezarriko da Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoaren aurrean, DONOSTIA KULTURAREN kontratatzeke barne jarraibideetan eta SPKLTBaren 41. artikuluko 4. eta 5. ataletan ezarritakoaren arabera.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Kontratuari dagokionez auzirik egonez gero, aldeak Donostiako epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira.

Donostian, 2016ko martxoaren 31ean



Jaime Otamendi Muñagorri

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO zuzendari gerentea